



Bi urte

ETA-k bere jarduera armatua bukatu zuela iragarri zuen 2011ko urriaren 20an, Euskal Herriko mende Erdiko historiari amaiera emanez. Amaiera bat behintzat, bere jardunaren ondorioak bizi-bizi baitaude oraindik eta eragin-dako zaurien ondorioak erabat irekiak. Bi urte iragan direnean, ondorio batzuk behintzat atera litezke.

Bat, sufrimenduaren atala erabat zabalik dago oraindik. Zauri zaharrak konpondu barik dira, ETAk ez ditu biktima berriak sortzen eta Estatuak bai, funtsean “dena da ETA” bizi-bizirik mantentzen duelako. Pertsonen giza eskubideekin kezkarik duenak, arduratua beharko luke gai honekin, pertsonen minarekiko ardura zintzoa bada behintzat.

Bi, suposatzekoa zen bake prozesua eratzea gaitza izango zela, baina zerbait gehiago egingo zela ere bai, poliki bada ere. Urratsik ez denez ikusten, honek etsipena sortzen du, batez ere ezker abertzaleko eremuan eta, beste neurri batean, bakea oraindik gauzatu gabe ikusten duen euskal gizarte esparru zabalean ere bai. Irtenbide bakarra dago, ordea, bultzatzen jarraitzea, euskal gizartean bake nahia oso sustraituta dagoelako, eta handik edo hemendik nahi hori aterako delako, lehenago ere gertatu den moduan. Krisi ekonomikoak, gainera, bigarren plano batera eraman du gatazkaren konponbidearen gaia.

Hiru, egoera politikoa finkatu dela dirudi, baina oraindik ez guztiz. Mahaiaren lau hanka ospe-tsua hor dira, gutxi gora-behera ohiko gizarte indarra ordezkatzeko, baina abertzaletasunaren gorako

joerarekin eta alderdi espainiar zaleen beherakadarekin, baita ideien esparruan ere. Ikusi behar ea joera hori mantentzen den edo ez. Seguruenik EH Bilduren garapenak markatuko du asko hori, azken bizpahiru urteetan bezala. Barne kohesioari eutsi eta ezkerreko soberanismoa XXI. mendeko parametroetara egokitzen asmatzen badu, lehia gogorrean jarraituko du EAJrekin.

Ohiko jardun instituzionalerako, ordea, badirudi alderdi tradizionalen pisua nagusituko dela, batez ere EAEn EAJk eta PSE-EEk egin duten itunarekin. Nafarroan alternatibak PSNren esku jarraitzen du oraingoz, baina dirudenez, gero eta gutxiago.

Aitzakiak nahi dituenak, gero ere esango du armak ez direla nahiko, ETAk desagertu egin behar duela, bestela ez dagoela ezer egiterik

Kataluniako bilakaerak ere eragin dezake euskal gizartean, bai mugimendu soberanistak har ditzakeen irakaspenengatik eta baita ere Estatuaren egituretan izan dezakeen eraginagatik.

Ezin da ahaztu, halaber, krisia dela sasoi honetako aldaketa akuitu nagusia eta ikusi beharko dela horrek zein neurritan eragiten dion euskal gizartean oraindik garrantzi handia duen ohiko alderdien eskemari.

BAKE PROZESUA oso geldo badoa ere, geldo-azkar sentipen, zantzu eta gertaerak sarri tartekatzen dira. Eusko Legebiltzarreko Bake eta Elkarbizitzarako Lan Taldearen ezintasunak; Herriaren aurkako sarekada; Donostiako Bakearen

Aldeko Alkateen Konferentzia emankorra; Jaurilaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Planak AEBetan izandako harrera ona; hirugarren Herri Harresia Iruñean Luis Goiñiren atxiloteta saihesteko; Segi eta Herriko Tabernen makroepailetan hasiera Auzitegi Nazionalan...

Eta egoera borobiltzeko, datozen asteetan izar bilaka daitezkeen bi gai: kartzelak eta armak. Bate-tik, aipatzen da Parot doktrinaren ebazpena heltzeaz dela Estrasburgotik. Urriaren amaiera aldera etor liteke –21ean aipatu da– eta leku askotan zabalduta da Estrasburgok berretsi egingo duela doktrinaren aurkako bere epaia. Batzuen ustez, Estrasburgoko Auzitegia presionatzeko bultzatzen ditu filtrazioak

PPk eta, besteen aburuz, kontrako epaia aurreikusiz, Espainiako sektore eskuindarren erreakzioa baretzeko.

Eta oraingoz azkenik, bake prozesuan azken bi urteetan ETAk eman lezakeen urratsik garrantzitsuena ere hor dago: armak entregatzen hasi litekeela bolo-bolo dabil udaraz geroztik. Hala bada, bultzada garrantzitsua eta beharrezkoa emango lioke bake prozesuari. Aitzakiak nahi dituenak, gero ere esango du armak ez direla nahiko, ETAk desagertu egin behar duela, bestela ez dagoela ezer egiterik. Baina armak entregatzearen eman beharreko urratsa da, sinbolikoki indar handia duelako eta desegite prozesu bati begira, ikusgarria eta esanguratsua ere badelako, bai euskal gizartean eta baita nazioartean ere. Nola eta abarrekoak garrantzitsuak dira, baina bigarren mailakoak. Nahi badu, ETAk topatuko bidea. ■

